

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. Urtarrila 2023

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak % 40,1 igo dira 2023ko urtarrilean eta % 50,4 apartamentu turistikoetan

Atzeritar jatorriko gaudien urte arteko hazkundera % 16,9koa izan da landa-ostatueta eta % 23,2koa apartamentu turistikoetan

2023ko urtarrilean Euskal AEko **landa-ostatueta** sarrera-kopurua % 40,1 hazi da aurreko urteko hil beraren aldean, Eustaten datuen arabera.

Sarrerak, guztira, 3.702 izan dira urte arteko hazkundearekin. Ostatu-gauen kopuruak % 46,8 egin du gora 2023ko urtarrilean, eta 9.899 gaudi izan dira guztira.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Urtarrila 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2023/01	m/m-12 (%)	2023/01	m/m-12 (%)	2023/01	2022/01	2023/01	p.p. *	2023/01	p.p. *
EUSKAL AE	3.702	40,1	9.899	46,8	2,67	2,55	9,2	3,3	11,8	3,4
Estatukoak	3.409	42,8	8.984	50,7	2,64	2,50	-	-	-	-
Atzeritarrak	293	14,5	915	16,9	3,12	3,06	-	-	-	-
Araba/Álava	739	52,4	2.003	53,6	2,71	2,69	7,5	2,5	9,7	3,2
Estatukoak	699	57,4	1.944	63,2	2,78	2,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	40	-2,4	59	-47,8	1,48	2,76	-	-	-	-
Bizkaia	1.000	84,5	3.026	108,0	3,03	2,68	9,8	5,3	13,7	6,6
Estatukoak	938	81,8	2.802	97,6	2,99	2,75	-	-	-	-
Atzeritarrak	62	138,5	224	505,4	3,61	1,42	-	-	-	-
Gipuzkoa	1.963	21,5	4.870	22,2	2,48	2,47	9,7	2,6	11,7	1,7
Estatukoak	1.772	24,2	4.238	26,5	2,39	2,35	-	-	-	-
Atzeritarrak	191	1,1	632	-0,2	3,31	3,35	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Otsailaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko urtarrilaren aldean % 14,5 hazi ondoren, atzerriko sarrerak 2023ko urtarrilean erregistratutako sarrera guztien % 7,9 izan dira. 2022ko urtarrilaren aldean, atzerriko jatorriko gaualdiak % 16,9 hazi dira eta guztizkoaren % 9,2 izan dira urtarrilean.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko urtarrilean sarreren urte arteko hazkundeak % 84,5 izan dira Bizkaian, % 52,4 Araban eta % 21,5 Gipuzkoan. Gaualdiei dagokienez, Bizkaian, urte arteko % 108,0ko hazkundearen ondoren, 3.026koa izan da. Araban, aurreko urteko hil beraren aldean % 53,6ko hazkundearen ondoren, gaualdien kopurua 2003ra iritsi da. Azkenik, guztira 4.870 gaualdi izan dira Gipuzkoako landa-ostatueta, aurreko urtean baino % 22,2 gehiago.

Euskal AEko establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,67 egunekoa izan da urtarrilean, hau da, 2022ko hilabete berean ikusitako batez besteko egonaldia 2,55 egunekoa baino handiagoa. Batez besteko egonaldia gaua igarotzen duten establezimenduetako bakoitzean bidaiariek ematen duten egun-kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEko egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen eta gelen arabera okupazio-mailek urte arteko gorakada izan dute, 3,3 eta 3,4 ehuneko-puntukoa, hurrenez hurren. % 9,2koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 11,8koa logelen arabera neurtuta.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2023ko urtarrilean 7.051 sarrera izan dira guztira, eta 35.717 gaudi. Aurreko urteko urtarrilaren aldean, sarrerak % 50,4 gehitu dira eta gaudiak % 29,0.

Apartamentu turistiko esaten zaio bloke edo multzo modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Epigrafe honetan ez dira sartzen erabilera turistikoko etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik eskaintzen, merkaturatzen edo aldi baterako lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Urtarrila 2023

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-beste egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2023/01	m/m-12 (%)	2023/01	m/m-12 (%)	2023/01	2022/01	2023/01	p.p. *	2023/01	p.p. *
EUSKAL AE	7.051	50,4	35.717	29,0	5,07	5,91	26,3	0,8	54,4	-1,7
Estatukoak	5.641	51,1	25.929	31,3	4,60	5,29	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.410	47,6	9.789	23,2	6,94	8,32	-	-	-	-
Araba/Álava	759	35,9	6.444	-3,9	8,49	12,01	20,6	-1,2	56,6	-5,5
Estatukoak	719	38,7	4.733	-4,8	6,58	9,59	-	-	-	-
Atzeritarrak	40	0,8	1.710	-1,4	31,00	31,00	-	-	-	-
Bizkaia	4.550	38,1	12.036	58,8	2,65	2,30	21,2	3,0	31,1	-2,0
Estatukoak	3.646	39,4	9.311	67,3	2,55	2,13	-	-	-	-
Atzeritarrak	904	32,9	2.724	35,4	3,01	2,96	-	-	-	-
Gipuzkoa	1.742	108,9	17.238	28,5	9,90	16,09	36,1	-0,9	75,0	6,8
Estatukoak	1.276	113,2	11.884	29,0	9,31	15,39	-	-	-	-
Atzeritarrak	466	98,1	5.354	27,5	11,49	17,87	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Otsailaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 20,0 eta gaudiaren % 27,4 atzeritar jatorriko bisitariei dagokie, urte arteko % 47,6ko eta % 23,2ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Establezimenduko batez besteko egonaldia 5,07 egunekoa izan da 2023ko urtarrilean, 2022ko urtarrilean lortutakoa (5,91 egun) baino txikiagoa.

Lurralde historikoei dagokienez, 2023ko urtarrilean batez besteko egonaldia 2,65 egunekoa izan da Bizkaian, 8,49 egunekoa Araban eta 9,90 egunekoa Gipuzkoan.

Plazen okupazio maila % 26,3ra iritsi da Euskal AEn, ehuneko 0,8 puntu igo ondoren 2022ko urtarilaren aldean. Azkenik, apartamentuaren okupazio-maila, ehuneko 1,7 puntu jaitsi ondoren, % 54,4an kokatu da.

Informazio-oharra

Landa Ostatuen ETHren erantzun-tasa % **90,5**ekoa izan da 2023ko urtarrilean, eta Apartamentu Turistikoen % **77,9**koa.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62